

STEM arloen eta lanbideen inguruko pertzepzioak gazteen artean

Bizipenak eta Komunitatea

BIZILABE, gazteentzako ikerketa-zentroen sarea

elhuyar
Zientzia

Tolosaldea, 2020




GALDETEGIARI ERANTZUN DIOTENEN PROFILA


574
erantzun jaso ditugu

Eskualdeko 7 ikastetxek parte hartu dute.

Hauek dira, mailaka eta ikastetxeka, galdetegiari erantzun dioten gazteen portzentajeak:



% 48,6
Neskak




% 47,9
Mutilak

EB

% 3,5 *
Ez-bitarrak

DBH 3 (% 50,2) eta DBH 4 (% 49,8)




* Ez-bitarra erantzun dutenen artean badira serioski erantzun ez dutela agerian utzi duten batzuk. Horregatik, ondorioak ateratzerakoan tentuz ibili gara.

GALDETEGIARI ERANTZUN DIOTENEN PROFILA

Gazteak bizi diren herria

Familien jatorria




Herrien izenen tamaina eta herri bakoitzean parte hartu duten gazteen kopurua proportzionalak dira.



GALDETEGIARI ERANTZUN DIOTENEN PROFILA

STEM arloan lan egiten duen hurbileko pertsonaren bat



STEM arloan lan egiten duen pertsonarekin duten erlazioa



STEM arloan jarduten duen gertuko norbait dutela erantzun duten gazteen % 43,6k hurbileko pertsona hori gurasoa edo anai-arreba dela adierazi dute.

Adin hauetan familiaren babesa oso garrantzitsua da, eta STEM kapitala (STEM arloei buruz dakien edo STEMen lan egiten duen senitarteko bat) duten familietako gazteek gehiago aukeratzen dituzte STEM ikasketak.


Iturria: Couso Legarón, D. & Grimalt-Álvaro, C. (2019). *Raising self-efficacy in STEM education to provide opportunities for all.*

GALDETEGIAREN EMAITZAK



ZENBAIT GAIRI BURUZKO INTERESA

Gazteei zenbait gairi buruz duten interesa otik 10erako eskalan baloratzeko eskatu diegu.



Gai sozialak > Medikuntza eta osasuna > Elikadura eta kontsumoa > Kirola > Hezkuntza




Kirola > Zientzia eta teknologia > Influencer-ak > Informatika, programazioa eta robotika > Ingurumena eta ekologia

EB

Medikuntza eta osasuna > Influencer-ak > Gai sozialak > Ingurumena eta ekologia > Irudi pertsonala eta moda

ZENBAIT GAIRI BURUZKO INTERESA

Gazteei zenbait gairi buruz duten interesa otik 10erako eskalan baloratzeko eskatu diegu.



Neska eta mutilen arteko desberdintasun nabariak gai hauetan ikusten dira: informatika, programazioa eta robotika (mutilei neskei baino % 28,9 gehiago interesantzen zaie); kirola (mutilei neskei baino % 21,1 gehiago interesantzen zaie); irudi pertsonala eta moda (neskei mutilei baino % 18,4 gehiago interesantzen zaie); zientzia eta teknologia (mutilei neskei baino % 17,4 gehiago interesantzen zaie); gai sozialak (neskei mutilei baino % 12,9 gehiago interesantzen zaie); eta medikuntza eta osasuna (neskei mutilei baino % 11,6 gehiago interesantzen zaie).



ZENBAIT GAIRI BURUZKO INTERESA

Esan dezakegu genero-estereotipo tradizionalak eragina dutela gazteek zenbait gairi buruz duten interesean:

- Tolosaldeako neskei gehien interesatzen zaizkien gaien artean daude gai sozialak (6,89*), medikuntza eta osasuna (6,47*), eta elikadura eta kontsumoa (6,26*).
- Mutilen kasuan, berriz, kirolen inguruko interesa da nagusi (8,2*). Ondoren, zientzia eta teknologia (6,36*), sare sozialak (6,12*), eta informatika, programazioa eta robotika (5,99*) interesatzen zaizkie gehien, hurrenez hurren.
- Bere burua ez-bitar bezala ikusten dutenei gehien interesatzen zaizkien gaiak medikuntza eta osasuna (6,9*), influencer-ak/sare sozialak (6,6*) eta gai sozialak (6,5*) dira.


Oro har, neskek interes handiagoa erakusten dute gai gehiagotan, eta mutilen interesa askoz ere fokalizatuagoa dago. Neskei gai gehiago gustatzen zaizkie, baina STEMekin erlazionatutakoak ez dira nabariak. Mutilek, ordea, nahiz eta gai gutxiagorekiko interes altua azaldu, STEMekin erlazionatutako gaiak hobeto baloratu dituzte.

***Oharra:** parentesien arteko balioek gai bakoitzari buruzko interesa adierazten dute 0-10 eskalan.



ZENBAIT GAIRI BURUZKO INTERESA

Gazteei zenbait ikasgairi buruz duten interesa otik 10erako eskalan baloratzeko eskatu diegu.



Biologia > Kimika > Fisika > Hizkuntza eta Literatura > Matematika



Teknologia > Informatika > Biologia > Fisika > Matematika


EB

Biologia > Teknologia > Matematika > Artea > Historia



ZENBAIT GAIRI BURUZKO INTERESA

Gazteei zenbait ikasgairi buruz duten interesa otik 10erako eskalan baloratzeko eskatu diegu.



Ikasgai batzuetan ere nesken eta mutilen arteko interesa oso desberdina da. Desberdintasun nabariena Informatika (mutilak neskek baino % 29,9 gehiago gustatzen zaie) eta Teknologia (mutilak neskek baino % 28,3 gehiago gustatzen zaie) ikasgaietan ikusten dira. Neskek mutilak baino interes handiagoa azaltzen duten ikasgaiak dira Hizkuntza eta Literatura (neskek mutilak baino % 14,8 gehiago gustatzen zaie), Artea (neskek mutilak baino % 13,6 gehiago gustatzen zaie) eta Biologia (neskek mutilak baino % 12,1 gehiago gustatzen zaie).

ZENBAIT GAIRI BURUZKO INTERESA

Gazteen ikasgaiekiko interes falta orokorra da. Oso ikasgai gutxik jaso dute 5,5etik gorako batezbesteko puntuazioa 0-10 eskalan (nesken, mutilen eta ez-bitarren noten batezbestekoa). Tolosaldeko gazteek ikasgaietan duten interes txikia bat dator munduko beste leku batzuetako gazteen interes-mailarekin. Esate baterako, Estatu Batuetako 275.000 gazte ingururi galdetuta, % 81k erantzun zuen ikasten dutena ez dela interesagarria.

"Aspergura" horri aurre egiteko konponbidea ez da "dibertigarria" egitea, motibazioa ikertzen duten ikerketek diotenez. Faktore askok eragiten dutela ikusi da, eta bost ezaugarri identifikatu dituzte:


- Ikasleak bere ikaskuntzaren kontrola izatea.
- Ikaskuntzan aukerak izatea.
- Erronkak izatea.
- Ikaskuntzaren konplexutasuna.
- Irakasle arduratsua/zaintzailea.

Aukera horiek gauzatzeko bide ona da proiektuetan lan egitea. Bide horretatik, Hezkuntza Sailak STEAM Euskadi estrategia abiatu du, ikastetxeek STEAM planak egin ditzaten.




ZENBAIT GAIRI BURUZKO INTERESA

Haurrak zirenean (8-10 urte) zientziarekin eta teknologiarekin lotutako eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea gustatzen zitzaien galdetzean:



Gaur egun zientziarekin eta teknologiarekin lotutako eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea gustatuko litzaiekeen galdetzean:



ZENBAIT GAIRI BURUZKO INTERESA

Adinaren arabera, oso desberdina da zientzia eta teknologiarekin lotutako eskolaz kanpoko jardueretikiko azaltzen duten interesa. Gazteen % 30k, gutxi gorabehera, adierazi dute haurrak zirenean (8-10 urte) horrelako ekintzetan parte hartzea gustatzen zitzaiela, eta ez dago generoen arteko desberdintasun handirik.

Galdetegiari erantzun dioten gazteek (15-16 urte), ordea, interes baxuagoa azaltzen dute zientzia eta teknologiako eskolaz kanpoko jardueretan. Mutilek haurrak zireneko interesaren erdia azaldu dute, eta neskek eta ez-bitarrek haurrak zirenean zuten interesaren herena gutxi gorabehera.


Gazteen eskolaz kanpoko ekintzen agenda zabalagoa da 15-16 urterekin. Horregatik, txikitik duten interesa mantentzeko, garrantzitsua da zientzia eta teknologiarekin erlazionatutako jarduerak eskaintzea.

Hori da, hain zuzen, BIZILABE gazteentzako ikerketa-zentroen xedeetako bat: gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko interesa eta motibazioa sustatzea, eta, aldi berean, eskualdearen lehiakortasuna bultzatzea.



GAITASUNEN PERTZEPZIOA

Gazteei eskatu diegu etorkizunean zenbait ikasgai ikasteko izango duten gaitasuna 0-10 eskala baten bidez baloratzeko.



Biologia > Hizkuntza eta Literatura > Kimika > Matematika > Fisika




Teknologia > Informatika > Matematika > Biologia > Fisika

EB

Biologia > Artea > Matematika > Teknologia > Kimika

GAITASUNEN PERTZEPZIOA

Gazteei etorkizunean STEM arloan lan egiteko izango duten gaitasuna baloratzeko eskatu diegu.



Gaitasunaren auto-pertzepzioan zuzeneko eragina du gazteek nerabezaroan zehar duten autoestimu-mailak

Oztopo nagusia: zientzia-ikasketak oso zailak direla pentsatzea, uste izatea ez direla gai, nahiz eta kasu askotan horrela ez izan.



GAITASUNEN PERTZEPZIOA

Gazteen interesak bat datoz etorkizunean hainbat ikasgai ikasteko izango duten gaitasunaren autopertzepzioarekin (mutilek neskek eta ez-bitarrek baino interes handiagoa azaltzen dute zientzian, teknologian eta informatikan). Horrela, mutilek (% 45,4), neskek (% 25,8) eta ez-bitarrek (% 20) baino gaitasun-maila handiagoa hautematen dute etorkizunean STEM arloan lan egiteko.

Emaitzak bat datoz beste toki batzuetan egindako ikerketekin. Adibidez, Everisek Espainian egindako ikerkuntza batean (Factores influyentes en la elección de estudios científicos, tecnológicos y matemáticos. Visión de los estudiantes de 3^o y 4^o de ESO y Bachillerato), ondorioztatu zen ikasleen % 45k ez zuela bere burua gai ikusten STEM ikasketak unibertsitatean egiteko, nahiz eta haietako asko benetan gai izan. Faktore horrek gehiago eragiten du nesengan.

Ikerketa garrantzitsuenetan azpimarratzen dute garrantzitsua dela autopertzepzioa berariaz lantzea, beste langai batzuekin batera: Lehen Hezkuntzaraino iristea, gazteen orientazioa hobetzea eta estereotipoak ikasgelan lantzea.



STEM PROFESIONALEN BIZIMODUA

Gazteei STEM arloan diharduen pertsona baten bizimodua baloratzeko eskatu diegu (1etik 10era).



Batez beste, 5,76ko notarekin baloratu dute




Batez beste, 6,97ko notarekin baloratu dute

EB

Batez beste, 5,3ko notarekin baloratu dute

Gazteei etorkizunean STEM arloan lan egitea gustatuko litzaiekeen galdetu diegu.





STEM PROFESIONALEN BIZIMODUA

Mutilek (6,97) hobeto baloratu dute STEM arloan diharduen pertsona baten bizimodua; puntu batetik gorako aldea dago nesken (5,76) eta ez-bitarren (5,3) balorazioa kontuan hartuta. Asko gustatzen zaiela erantzun dutenek arrazoi hauek eman dituzte beren nota argudiatzeko :

- STEM arloko gaiak gustatzen zaizkidalako.
- Lan-baldintza onak dituztelako.
- Soldata onak dituztelako.

Etorkizunean zientzia eta teknologiaren alorrean lan egitea gustatuko litzaiekeen galdetu diegunean, jasotako erantzunak bat datoz etorkizunean STEM arloan jarduteko duten autopertzepzioarekin. Eta, gaitasunen autopertzepzioarekin gertatzen den bezala, mutilek gehiagotan adierazi dute etorkizunean STEM arloan lan egitea gustatuko litzaiekeela, neskek eta ez-bitarrek baino.

Nesken % 23,3k erantzun dute zientzia eta teknologiarekin erlazionatutako jardueretan lan egitea gustatuko litzaiekeela (% 25,8k adierazi dute STEM arloan lan egiteko gai izango direla).

Mutilen % 50,7k erantzun dute zientzia eta teknologiarekin erlazionatutako jardueretan lan egitea gustatuko litzaiekeela (% 45,4k adierazi dute STEM arloan lan egiteko gai izango direla).



ZER IZAN NAHIKO ZENUKE NAGUSITAN?

Gazteek hautatu dituzten lanbideak hitz-hodei* honen bidez adierazi ditugu: "Ez dakit" da gehien errepikatzen den erantzuna:

GUZTIRA

% 21,4 (748 erantzunetik 160)



% 20,4 (383 erantzunetik 78)



% 22,4 (340 erantzunetik 76)

EB

% 24 (25 erantzunetik 6)



*Gehien errepikatzen diren hitzak tamaina handiagoarekin adierazten dira, baina ez dira guztiz proportzionalak



ZER IZAN NAHIKO ZENUKE NAGUSITAN?

"Ez dakit" erantzuna kenduta gazteek hautatu dituzten lanbideak hitz-hodei* hauen bidez adierazi ditugu:



(305 erantzun)



Irakaslea → % 15,7 (48)

Medikua → % 8,5 (26)

Psikologoa → % 6,9 (21)

Fisioterapeuta → % 4,3 (13)

Diseinatzailea → % 3,9 (12)



(264 erantzun)



Ingeniaria → % 11,7 (31)

Irakaslea → % 10,2 (27)

Mekanikoa → % 9,5 (25)

Informatikaria → % 9,1 (24)

Industriako lang. → % 5,3 (14)

EB

(19 erantzun)



Irakaslea → % 10,5 (2)

Medikua → % 10,5 (2)

Informatikaria → % 10,5 (2)

Industriako lang. → % 10,5 (2)


*Gehien errepikatzen diren hitzak tamaina handiagoarekin adierazten dira, baina ez dira guztiz proportzionalak



ZER IZAN NAHIKO ZENUKE NAGUSITAN?

% 84k DBHko 3.-4. mailan oso argi dute zer ikasi nahi duten (Everis). Nesken artean, osasun- eta gizarte-zientziei lotutako lanak nagusitu dira, eta mutilek arlo teknologikoari lotutako lanak aukeratu ditzuzte gehienbat. Erantzun hauek bat datoz batxilergo zientifiko-teknologikoa aukeratzen duten nesken eta mutilen datuekin.

Ikasleen bilakaera batxilergo zientifiko-teknologikoan (Iturria: Eustat)




* Batxilergoetako ikasleen totalarekiko




ZER IZAN NAHIKO ZENUKE NAGUSITAN?

Modu berean, jasotako erantzunak bat datoz STEM arloko lanbide-heziketako eta STEM arloko unibertsitateko ikasketetako nesken eta mutilen matrikulazioekin.

LHn sartu diren ikasle nesken bilakaera (Iturria: Eustat)



Unibertsitatean sartu diren ikasle nesken bilakaera (Iturria: Eustat)



STEM adarrak aukeratzen dituzten ikasle neskak lanbide-heziketako % 9 baino ez dira, eta unibertsitatekoen % 31.



ZER IZAN NAHIKO ZENUKE NAGUSITAN?


STEMekin erlazionatutako ikasketak dituzten profilei dagokienez enpresek egiten dituzten eskaerek eragina dute matrikuletan; hortaz, eragina izan dezakete etorkizunean neskek STEM arloko lanetan izan dezaketen presentzian.

STEM-LH lanbideen eskaera (Iturria: Konfebask)



Eskaera GUZTIRA
2018: 11.166
2016: 7.158

STEM-unibertsitateko lanbideen eskaera (Iturria: Konfesbask)



Eskaera GUZTIRA
2018: 5.874
2016: 4.700

ESKUALDEKO ENPRESETAKO LANA

Eskualdeko enpresetan zer lan egiten duten galdetuta, "Ez dakit" da gehien errepikatu den erantzuna:

GUZTIRA
% 50,9 (625 erantzunetatik 318)



% 50,8 (315 erantzunetatik 160)



% 50,5 (295 erantzunetatik 149)

EB

% 60 (15 erantzunetatik 9)



*Gehien errepikatzen diren hitzak tamaina handiagoarekin adierazten dira, baina ez dira guztiz proportzionalak

ESKUALDEKO ENPRESETAKO LANA

"Ez dakit" erantzuna kenduta, gazteen usteez hauek dira eskualdeko enpresetan egiten diren lanak:



(155 erantzun)



Papergintza → % 18,7 (29)

Industria → % 13,5 (21)

Piezak → % 4,5 (7)

Denetarik → % 4,5 (7)

Nekazaritza → % 4,5 (7)



(146 erantzun)



Industria → % 13,7 (20)

Papergintza → % 13,1 (19)

Piezak → % 9,6 (14)

Denetarik → % 8,9 (13)

Automozioa → % 4,1 (6)

EB

(6 erantzun)




Guztiak → % 16,7 (1)

*Gehien errepikatzen diren hitzak tamaina handiagoarekin adierazten dira, baina ez dira guztiz proportzionalak

ESKUALDEKO ENPRESETAKO LANA

Tolosaldeko gazteek nahiko ondo irudikatu dute eskualdeko jardura ekonomikoa. "Papergintza", "Industria" eta "Piezak" hitzak erabili dituzte gehien beren ustez eskualdean egiten den lana adierazteko.

Tolosaldeko industria-establezimenduen banaketa jardura-adarraren arabera. (Iturria: Eustat)



Establezimenduen erdiak (2016an, % 49,3) metal-mekanikaren sektoreko jardueretan aritzen dira.

Industria-establezimenduen % 16,3 elikagaien eta edarien industriakoak ziren 2016an.

Establezimendu-kopuruan ez bada ere, paperaren sektoreak garrantzi nabarmena du eskualdean. Paperaren sektorearekin loturik, egurraren sektoreak ere enpresa-establezimendu asko ditu eskualdean.



ESKUALDEKO INDUSTRIA HITZ BATEAN

"Ez dakit" erantzuna kenduta, eskualdeko industriaren argazki hau egin dute gazteek:



(117 erantzun)



Kutsadura → % 28,2 (33)

Ona → % 6,8 (8)

Lanpostuak → % 6,8 (8)

Kontsumoa → % 3,4 (4)

Papergintza → % 2,6 (3)



(125 erantzun)



Kutsadura → % 19,2 (24)

Lanpostuak → % 8,8 (11)

Ona → % 6,4 (8)

Ezer ez → % 4,8 (6)

Etorkizuna → % 4 (5)

EB

(9 erantzun)



Kutsadura → % 22,2 (2)

Ona → % 22,25 (2)

Besteak → % 11,1 (1)

*Gehien errepikatzen diren hitzak tamaina handiagoarekin adierazten dira, baina ez dira guztiz proportzionalak

ESKUALDEKO INDUSTRIA HITZ BATEAN

"Ez dakit" erantzuna kenduta, "kutsadura" da neskek (% 28,2), mutilek (% 19,2) eta ez-bitarrek (% 22,2) gehien aipatu duten hitza. Gehien errepikatzen diren hurrengo hitzak "ona" eta "lanpostuak" dira hiru taldeetan.



ESKUALDEKO INDUSTRIAN LAN EGITEA

"Ez dakit" erantzuna kenduta, hau da etorkizunean gazteek eskualdean lan egiteari buruz duten iritzia:



(108 erantzun)



- Ona → % 10,2 (11)
- Ez gustukoa → % 10,2 (11)
- Poztasuna → % 8,4 (9)
- Gertutasuna → % 6,5 (7)
- Dirua → % 5,6 (6)



(120 erantzun)



- Ona → % 19,2 (23)
- Ez gustukoa → % 7,5 (9)
- Dirua → % 6,7 (8)
- Ezer ez → % 5,8 (7)
- Poztasuna → % 5 (6)

EB

(10 erantzun)



- Ezer ez → % 20 (2)
- Besteak → % 10 (1)

*Gehien errepikatzen diren hitzak tamaina handiagoarekin adierazten dira, baina ez dira guztiz proportzionalak

ESKUALDEKO INDUSTRIAN LAN EGITEA

"Ez dakit" erantzuna kenduta, eskualdeko industrian lan egiteak iradokitzen diena adierazteko neskek gehien errepikatu dituzten hitzak "ona" (% 10,2) eta "ez gustukoa" (% 10,2) dira, eta "poztasuna", "gertutasuna" eta "dirua" dira gehien errepikatzen diren konnotazio positiboko hitzak.


Tolosaldean lan egiteak iradokitzen diena adierazteko mutilen artean gehien errepikatzen den hitza "ona" da (% 19,2), nesken kasuan halako bi agertzen da, gutxi gorabehera. "Ez gustukoa" eta "ezer ez" erantzunak dira, ordea, errepikatuenen artean ageri diren konnotazio negatiboko hitzak; bien artean, erantzunen % 13,3a batzen dute. Nesken erantzunetan bezala, "dirua" eta "poztasuna" hitzak ere nabarmentzen dira.

Galdera honetan jasotako datuek ez dute aukerarik ematen ez-bitarrei buruzko ondorioz ateratzeko.




ESKUALDEKO INDUSTRIA ETA GENEROA

Gazteei zientzia eta teknologian jarduten duten emakumeek eta gizoneek baldintza berdinak ote dituzten galdetu diegunean, erantzun hauek jaso ditugu:



Taldeen artean, genero-berdintasunari buruzko ikuspegia oso desberdina da, eta oso nabaria da nesken, mutilen eta ez-bitarren arteko aldea erantzunetan aldea. Nesken % 60k uste dute STEM arloan jarduten duten emakume eta gizonek baldintza desberdinetan lan egiten dutela; aldiz, mutilen % 30k bakarrik aukeratu dute erantzun hori, eta ez-bitarren % 15k.

Tolosaldean zientzia eta teknologian jarduten duten emakume eta gizonen baldintza berdinak ote dituzten galdetu diegunean, ordea, hau erantzun dute gazteek:



Galdera Tolosaldean kokatu dugunean, erantzunak oso desberdinak izan dira, eta neska eta mutilen arteko erantzunak ez dira hainbeste desberdintzen. Horrela, STEM arloan generoen arteko desberdintasunak daudela erantzun duten nesken kopurua % 31ekoa da, eta mutilen kasuan % 20,4koa.

Ikusgarria da nesken iritzi-aldaketa galdera orokorretik Tolosaldeari buruzko galderara. Beren eskualdean genero-berdintasunari buruz duten ikuspegia baikorragoa da.

Zientzia eta teknologian jarduten duten emakume eta gizonek baldintza berdinak ez dituztela uste dutenek esaldi hauekin arazoitu dituzte beren erantzunak (ez dago desberdintasunik taldeen artean):



Tolosaldeko egoerari buruzko erantzuna arazoitzeko ere, erantzunak oso antzekoak izan dira, eta, kasu gutxi batzuetan, ezagutzen dituzten egoerak azaldu dituzte.

STEM ARLOAN ARITZEN DIREN PERTSONEN EZAUGARRIAK

Gazteei zientzian eta teknologian jarduten duen pertsona bat deskribatzeko eskatuta, ezaugarri hauek aipatu dituzte (2.076 erantzun):



Sintonia handia dago nesken, mutilen eta ez-bitarren artean, zientzian eta teknologian ari diren pertsonak deskribatzean:

Langilea → % 14,9 (402)

Jakintsua → % 13,6 (369)

Argia → % 11,8 (318)

Pazientzia handikoa → % 9,2 (248)

Sortzailea → % 7,7 (209)

*Gehien errepikatzen diren hitzak tamaina handiagoarekin adierazten dira, baina ez dira guztiz proportzionalak

STEM ARLOAN ARITZEN DIREN PERTSONEN EZAUGARRIAK

Zientzian eta teknologian lan egiten duten profesionalen inguruan dauden estereotipoek eragina dute gazteen ikasketen hautaketetan. Izan ere, hainbat ikerketak ondorioztatu dute ezen gazteek aparteko talentudun pertsona gisa ikusten dituztela ikertzaileak (brainy), eta, horren eraginez, arlo horietako ikasketak baztertzen dituztela, gai izango ez direlakoan. (Iturria: Young people's science and career aspirations, age 10-14. King's College London).





NOLAKOAK DIRA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA?

Zientzia eta teknologiari buruzko hurrengo esaldiaekiko adostasuna agertzeko eskatu diegu 0-10 eskala baten bidez (Ikerkuntza eta berrikuntza arduratsuari (RRI) lotutako esaldiak dira):

- Zientzia eta teknologiari buruzko informazioa denon eskura egon daiteke, ondo bilatuz gero



Adostasuna → 7,2

Ez dakit → % 12,2 (34)



Adostasuna → 7,4

Ez dakit → % 9,8 (27)

EB

Adostasuna → 4,6

Ez dakit → % 20 (4)

- Herritarren beharrak eta iritziak kontuan hartzen dira zientzia eta teknologian



Adostasuna → 5,7

Ez dakit → % 14,7 (41)



Adostasuna → 5,9

Ez dakit → % 19,6 (54)

EB

Adostasuna → 3,7

Ez dakit → % 35 (7)

- Zientziak eta teknologiak pertsona guztien behar eta eskubideei erantzuten diete, arraza, generoa eta gaitasuna zein den kontuan hartu gabe



Adostasuna → 6,4

Ez dakit → % 14,3 (40)



Adostasuna → 6,6

Ez dakit → % 16,4 (45)

EB

Adostasuna → 5,9

Ez dakit → % 20 (4)

- Pertsonengan eta ingurumenean izan dezaketen eragina kontuan izanik garatzen dira zientzia eta teknologia



Adostasuna → 6,2

Ez dakit → % 15,8 (44)



Adostasuna → 6,8

Ez dakit → % 16 (44)

EB


Adostasuna → 5,1

Ez dakit → % 30 (6)



NOLAKOAK DIRA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA?

Bukatzeko, gazteei ikerketa zientifikoek eta asmakuntza teknologikoek gizartean duten eraginari buruz galdetu diegunean, erantzun hauek jaso ditugu:



Erantzunetan ez da desberdintasun handirik ikusten neska eta mutilen artean; ez-bitarren taldea da gehien desberdintzen dena, galderari buruzko iritzirik ez dutela adierazi baitute beste taldeek halako bi kasutan.

Oso deigarria da nesken % 46,6k, mutilen % 47,6k eta ez-bitarren % 40k pentsatzea ikerketa zientifikoek eta asmakuntza teknologikoek gizartearentzat dituzten onurak eta kalteak orekatuak daudela.

ONDORIO NAGUSIAK



ONDORIO NAGUSIAK

- Esan dezakegu genero-estereotipo tradizionalak eragina dutela gazteek zenbait gairekiko duten interesean. Oro har, neskek interes handiagoa erakusten dute gai gehiagotan, eta mutilen interesa askoz ere fokalizatuagoa dago.
- Ikasgaiekiko interes-maila baxua da oro har. Neskek Biologian (7,33) eta Kimikan (6,16) dute interesik handiena; mutilek, aldiz, Teknologian (6,70) eta Informatikan (6,64).
- Gazteen erdiek (626tik 318k) ez dute eskualdeko industria ezagutzen, eta eskualdeko industrian lan egiteak ez ditu bereziki erakartzen. Halere, badira eskualdeko industria eta lana gauza positiboekin lotzen duten hainbat gazte, neskak zein mutilak.
- STEM profesionalen bizimoduari buruz, oso ikuspuntu desberdina dute neskek eta mutilek. Mutilek hobeto baloratu dute STEM profesionalen bizimodua (6,97), eta mutil gehiagok agertu dute etorkizunean STEM arloan lan egiteko interes handiagoa (% 50,7, neskak halako bi).

ONDORIO NAGUSIAK

- STEM profesionalak pertsona langileak, jakintsuak, argiak, pazientzia handikoak eta sortzaileak direla uste dute gazteek. Ezaugarri horietako batzuk ikasle onak deskribatzeko ohiko adjektiboak dira.
- Genero-estereotipoek indarra dute etorkizuneko lanbideak hautatzerakoan ere. Neskek osasun-zientziekin eta irakaskuntzarekin erlazionatutako lanbideak hautatu dituzte gehienbat; mutilek, berriz, teknologiarri lotutako gaiak.
- Orokorrean, gazteek uste dute zientzia eta teknologian jarduten duten emakume eta gizonen arteko lan-baldintzak desberdinak direla, baina eskualde mailako ikuspuntua baikorragoa da, eta ez dituzte desberdintasunak hainbeste nabarmentzen.
- Etorkizunean STEM arloan lan egiteari dagokionez, neskek eta mutilek gaitasun-maila desberdina hautematen dute: mutilen % 45ek, nesken % 25ek eta ez-bitarren % 20k ikusten dute beren burua sektore horretan lanean.